

1. URRATSA: HASTEN: LEHEN BEHARRETARAKO HIZKUNTZA

IKASLEEN EGOERA:

*Lehen harremana euskararekin: ikasleek euskara hemengo hizkuntza bat dela ezagutzen dute.

* Beste hizkuntza bat ikasteko estrategiak garatzen hasi behar dira.

* Ez-ahozko komunikazioa edo lehen hizkuntza erabiltzen dute aginduei, galderei erantzuteko.

* Ulermena eraikitzen dute irudi bidezko laguntzaren bidez: irudiak, grafikoak, eskemak, keinuak...; eta aurrera joan ahala ezagutzen dituzten hitzen bidez...

* Ikasle askok isiltasun-aldia izaten dute.

* Ulermenean aurreratzen ari diren heinean, hasten dira besteek esandako esapideak, hotsak imitatzen, eta pixkanaka, pixkanaka euskara erabiltzen hasten dira.

IKASLEEKIN LORTU NAHI DUGU:

- Hizkuntza berriari hurbilduz, euskara eskolako hizkuntza dela ohitzea.
- Ohiko jardueretako oinarrizko hizkuntza ulertzea: eguneroko jardueren esapideak eta esaldi errazak ulertzea, lehenengo beharrak asetzeko.
- Hizkuntza erabiltzea oinarrizko komunikaziorako: eguneroko esapideak eta esaldi errazak erabiltzea oinarrizko elkarren arteko komunikazioan parte hartzea ahalbideratzeko.
- Aurretik landutako edo asko errepikatzen diren oinarrizko hiztegia identifikatu, ulertu eta erabiltzen hastea.
- Irakurketa eta idazketa tresna gisa erabiltzea euskara ikasteko eta komunikatzeko.

0.multzoa: Hizkuntza berriari hurbilduz, euskara eskolako hizkuntza dela ohitzea.

Edukiak

Euskara: eskolako hizkuntza.

Euskararen hotsak: Hitzak eta soinuak errepikatzea

Euskararen intonazioa: Galderak, harridura...

Euskaraz lehen hitzak eta lehen hizkuntza-zatiak: andereñoa, klasea, etxera goaz, oso ondo, bat, bi hiru, zein polita den!,

Eskolako hizkuntzak bereiztea: euskara, gaztelania, ingelesa.

1. multzoa: Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta solasean aritzea¹

1.A: ENTZUTEA

HELBURUA: Ohiko jardueretako oinarrizko hizkuntza ulertzea

Edukiak

1. Keinu, agur eta kortesiazko esaldiei erantzutea.
2. Ezagunak diren eskolako gauzak, izenak eta ekintzak identifikatzea.
3. Gelako errutinak jarraitzea, eguneroko eginkizunak egiteko orduan.
4. Mezu motz eta argien ideia nagusia antzematea.
5. Herriko edo hiriko leku ezagunen izenak antzematea.
6. Ikasgela barruan giza harremanetan erabiltzen diren ahozko testuak ulertzen hastea: begi bidezko laguntza duten instrukzio eta agindu sinpleak.
7. Gai ezagunei buruzko elkarrizketak jarraitzea (norberari edo familiari buruzko informazioa, helbidea, zaletasunak...).
8. Ahozko testuak ulertzeko prozedurak erabiltzea: ulertzen ez duela adieraztea, lehen-hizkuntza erabiltzea informazioa argitzeko...
9. Ikasketa-prozesuko ahozko testuak ulertzea begi bidezko laguntzarekin:
 - Ezagunak diren pertsonen eta tokien deskribapenak,
 - ikasketa-edukiei buruzko solasaldiak eta
 - lan-antolamenduari buruzko azalpenak.
10. Begi bidezko laguntza duten istorio, kanta edo olerki sinple, motz eta errazak ulertzea

¹ Curriculumean (LOE) bost eduki-multzo agertzen dira, hizkuntza-programa honetan agertzen diren biak eta beste hiru: hizkuntzari buruzko gogoeta, literatur hezkuntza eta hizkuntzaren gizarte-dimentsioa.

Azken hiru multzoetako oinarrizko eduki batzuk aukeratu ditut eta ni multzo horietan sartu ditut dokumentua erraztu aldera.

1.B: HITZ EGITEA ETA SOLASEAN ARITZEA

HELBURUA: Hizkuntza erabiltzea oinarrizko komunikaziorako

Edukiak

1. Ez-ahozko komunikazioa erabiltzea elkarrizketetan: keinuak..
2. Entzuten diren soinuak eta hitzak errepikatzea.
3. Pertsona, leku eta ikastetxeko tokien izenak seinalatu eta esatea.
4. Esaldi laburrak, olerkien zatiak, kantak, hitz-kateak errepikatzea.
5. Kortesiako esaldiak erabiltzea. agurrak, baimena eskatu, eskerrak eman, barkamena eskatu..².
6. Norberari buruz oinarrizko informazioa ematea, eta galdetzea esaldi sinpleak erabiliz: adina, helbidea, lagunak, izaera, zaletasunak.
7. Norberaren familiari buruzko oinarrizko informazioa ematea.
8. Egoera fisikoari buruzko informazioa ematea.
9. Gustuak modu sinplean adieraztea.
10. Kantitateak eta posizioa adieraztea.
11. Data eta ordua galdetzea eta ematea.
12. Eguneroko jardueri buruzko informazioa ematea: egin denari buruz, eguraldiari buruz...
13. Ikasitako hizkuntza-zatiak erabiltzea.
14. Elkarrizketak kontrolatzen dituzten esapideak erabiltzea: *ez dut ulertzen, errepikatu, mesedez...*
15. Ikasketa-prozesurako ahozko testuak sortzea, irakaslearen laguntzarekin: galdera zuzenei erantzunak, deskribapen sinpleak.
16. Galdera motz eta gidatuak erabiltzea informazioa bilatzeko.
17. Ikasgela barruan pertsonen arteko harremanetan erabiltzen diren ahozko testu laburrak sortzen hastea irakaslearen laguntzarekin: sentimenduei edo ohiko gertaerei buruzko kontakizun errazak, eguneroko ekintzei buruzkoak...
18. Irakasleak ulertzeko moduan hitz egitea: bolumen egokiarekin eta argi hitz egiten saiatzea.
19. Ezaugarri hauek dituzten gizarte harremanetako edo ikasketa-prozesuko komunikazio egoeretan parte hartzea eta elkarlanean aritzea: beste solaskide bat ezaguna eta ohikoa, gai zehatzak edo aurretik prestatutakoak eta gertukoak darabiltzatenak.
20. Komunikazioari eusteko elkarreragineko oinarrizko arauak erabiltzea: entzutea, txanda errespetatzea...
21. Komunikazio elkartrukeetan eta ikasketa-prozesu partekatuko egoeretan lankidetzarako jarrera eta errespetua azaltzea.
22. Ikasleen ahoskerari eta intonazioari errespetua erakustea.

² KOLOREZ JARRITAKOAK: Funtzio linguistikoak.

2. multzoa: Idatziko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

HELBURUA: Irakurketa eta idazketa tresna gisa erabiltzea euskara ikasteko eta komunikatzeko.

Edukiak

1. Oinarrizko informazioa ulertzea testuetan.
2. Informazioa zehatza bilatzea.
3. Idazketa erabiltzea informazioa gogoratzeko.
4. Irudi bidezko hiztegia erabiltzea.
5. Ezagunak diren hitzen hiztegia egitea.
6. Gelako eta ikastetxeko liburuak erabiltzea informazioa lortzeko.
7. Testu laburrak ozen irakurtzea.
8. Irakasleak aldez aurretik irakurritako ipuin laburrak doinu egokiz irakurtzea.
9. Hizkuntza batean ikasitako hizkuntza-ezagutzak aktibatuz, beste hizkuntza bateko idatziko testuak hobeto ulertzea.
10. Irakurgai edo istorio batean zatirik garrantzitsuenak bereiztea, baita pertsonaiak eta lekuak ere.
11. Testuaren antolaketa ezagutzea: lerroaldeak.
12. Testua ulertzeko estrategiak erabiltzea: testuarekin batera doan irudiak, hitz ezezagunen esanahia ondorioztatzea.
13. Ordenagailuko programetako ikur, mezu eta agindu sinpleak ulertzea.
14. Eskolan erabili ohi diren testua ulertzea eta sortzea informazioa antolatzeko eta komunikatzeko: laburpenak, eskemak, deskribapen sinpleak.

HIZTEGIA:

Oinarrizko hiztegia gai hauen inguruan, curriculumeko arloei lotua:

Matematika:

- Egutegia: egunak eta hilabeteak
- Zenbakiak.
- Geometriazko oinarrizko hiztegia: objektuen posizioa adieraztekoa
- Figura lauak eta gorputz geometrikoak

Ingurunea:

- Gorputza: atalak, gaixotasun arruntak, oinarrizko hiztegia deskribapen sinpleak egiteko, egoera fisikoa eta animikoa.
- Jantziak
- Elikagaiak, jatorduak.
- Ni eta nire familia
- Ingurune soziala: eskola, kalea, auzoa.
- Eskolako, inguru gertuko ohiturak eta jaiak.
- Izaki bizidunak: animaliak eta landareak.

TESTU MOTAK

Zerrendak

Irudi bidezko laguntza duten ipuin motzak.

Oharrak

Irudi bidezko laguntza duten azalpenezko testu errazak

Irudi bidezko duten deskribapen sinpleak.

Argazki-oina

Begi bidezko duten albiste errazak

Irudi bidezko duten olerki errazak

Istorio motzak

Irudi bidezko duten azalpenezko testuak

Antolatzaile grafikoak

Komikiak

Irudi bidezko laguntza duten aginduzko testuak

Iragarkiak